

SARRERA:

Tracking Bilbao Kulturari eta Interneti buruzko Jardunaldiak TRACKING BILBAO PODCASTING lehiaketaren laugarren edizioa antolatu du #TrackingIndustry ekimenaren barruan. Podcast lehiaketa honen helburua da fikziozko eta ez-fikziozko Podcast-en ekoizpen eta zabalkundea sustatzea.

Lanak **2025ko urriaren 12** baino lehen aurkeztu beharko dira trackingbilbao@gmail.com helbide elektronikoa.

Epaimahaikideek piezen originaltasuna, sormena eta interesa baloratuko dute. Epaimahaiaren erabakia Tracking Bilbao Jardunaldietan emango da jakitera, 2025ko azaroaren 24 eta 30 bitartean ospatuko dena.

SARIAK:

Irabazleek, podcasten banaketa berriak egiteko laguntza gisa, honako sari hauek jasoko dituzte:

- Gaztelaniaz egindako podcast onenaren saria: **1.000 euro ***
- Euskaraz egindako podcast onenaren saria: **1.000 euro ***

* Indarreko araudiaren arabera atxikipen fiskalak aplikatuko dira.

OINARRIAK:

“TRACKING PODCASTING” LEHIAKETAREN 4. EDIZIOAREN OINARRIAK

Parte-hartzea:

-Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte har dezakete lehiaketan, eta programako arduradunen % 50 ordezkatu beharko dira gutxienez.

-Lehiaketan parte hartzeko, gehienez 20 minutuko audio edo bideo pieza bakarra aurkeztu beharko da demo modura.

-Gaia erabat askea da, eta maketa edozein generotan (fikzioa, kazetaritza, dibulgazioa, ...) edo edozein gaitan oinarritu daiteke (zinea, musika, kirola, artea, sukaldaritza, jendartea, politika, ...). Aurkeztutako piezak azken lanaren aurkezpen gutun gisa balio beharko du.

-Audio piezak mp3 formatuan aurkeztu beharko dira, eta bideo piezak mp4 formatuan (h264).

-Euskaraz eta gaztelaniaz egindako lanak onartuko dira.

-Lanak trackingbilbao@gmail.com helbide elektronikora bidali beharko dira **2025ko urriaren 12ra** arte, eta haiekin batera aurkeztu beharko da erantsita dagoen inprimakia, behar bezala beteta.

-Audioak/Bideoak aurretik argitaratu gabea izan behar du, ez komertziala, eta ezein plataformatan inoiz emititu gabea.

-2026an gutxienez 4 saio oso egiteko konpromisoa hartu beharko dute irabazleek, zeintzuek doako plataformetan egon beharko baitute eskuragarri, hala nola Spotify-n, iVoox-en, Twitch-en, MixCloud-en edo YouTube-n. Saio bakoitzak TRACKING BILBAO PODCASTING Podcast Lehiaketaren aipamena jaso beharko du. Erakundeak irabazleekin adostuko du bai saioen iraupena zein nola aipatu beharko den "Tracking Bilbao Podcasting" lehiaketa, saio bakoitzaren formatuaren arabera (iragarki laburra, goiburua, aurkezlearen aipamena, etab.).

Epaimahaia

-Epaimahaikideek kontuan izango dute aurkeztutako lanaren originaltasuna, sormena eta interesa.

-Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

-Epaimahaiak esleitu gabe utzi ahalko du sarietako edozein.

Harremanetarako

- Zalantzarik izanez gero, jarri antolakuntzarekin harremanetan helbide elektronikoa honetan: trackingbilbao@gmail.com

LEGE-BALDINTZAK:

Oinarri hauek onartzea ezinbestekoa da lehiaketan parte hartzeko eta, ondorioz, sariak jaso ahal izateko. Parte-hartzailearen batek Oinarri hauetan ezarritako baldintzak urratzen baditu, lehiaketatik kanpo geratuko da berehala.

Edukiak ezin izango dira, inola ere, itzulpen hutsak izan, ezta lehiaketan parte hartzen dutenez bestelako egileek jatorriz beste hizkuntza batean egindako edukien moldaketak ere.

Egile-eskubideak

Edukia lehiaketara aurkeztuta, parte-hartzaileek bermatu egiten dute ez dutela hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituen materialik emango. Hortaz, edozein arau ez betetzeak edo hirugarrenen eskubideak urratzeak eragindako erantzukizun orotatik askatzen dute parte-hartzaileek Tracking Bilbao, eta beren gain hartzen dute Tracking Bilbao erantzukizun horietatik libratzeko betebeharra.

Erakundeak, halaber, eskubidea izango du hautatutako eta jasotako podcastak sustapen- eta/edo difusio-helburuekin erabiltzeko. Podcastak atal honetan aipatu ez diren helburuetarako erabiliz gero, egilearen baimena eskatu beharko da.

Edukiak argitaratu gabea izan behar du, eta ez da aldeztu aurretik argitaratutako piezarik onartuko; era berean, ez da turismo- edo publizitate-arloko piezarik onartuko.

Tracking Bilbao Podcasting-en aurreko edizioetan parte hartu duten podcastak demo berri batekin aurkeztu ahal izango dira, aurreko edizioan sarituak izan zirenak izan ezik. Azken kasu horretan, aurreko edizioan irabazle izan diren podcastetako kideek izaera desberdineko podcast batekin bakarrik parte hartu ahal izango dute.

Era berean, dagoeneko martxan dauden podcastak aurkeztu ahal izango dira, baldin eta oinarri hauekin bat datorren argitaratu gabeko demoa aurkezten badute.

Ez da onartuko hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratzen dituen lanik.

Edukiek ez dute pertsona fisiko edo juridikoen jabetzaren, osotasunaren edo irudi onaren aurka egin behar.

Azken klausulak

Lehiaketan parte hartzeko, ezinbestekoa da oinarri hauek onartzea. Tracking Bilbaok hartuko ditu oinarrietan jasota ez dauden gaien inguruko erabakiak.

Erakundeak ez du bere gain hartuko arazo teknikoak direla-eta ikusi edo entzun ezin diren audioen edo bideoen gainerako ardurarik.

Tracking Bilbaok ez du inolako erantzukizunik izango edozein partaideren materiala galdu edo atzeratzen bada, ezta eteten bada ere, edota aldi batean erabilgarri ez badago edo funtzionamenduak jarraitutasunik ez badu. Ez du inolako erantzukizunik izango, halaber, transmisioan arazoak gertatzen badira, informazioa galtzen bada, iruzurrik gertatzen bada, sarean akatsak badaude, softwarearen funtzionamenduan arazorik badago, sarbide-, komunikazio- edota erantzun-akatsak gertatzen badira, edo lehiaketan aldaketarik gertatzen bada, bere esku ez dauden edo sare-operadoreei, zerbitzu emaile bitartekariei edo hirugarrenei egotz dakizkien arazo teknikoak edo bestelakoen ondorioz.

Tracking Bilbaok parte-hartzaileen nortasunari buruzko beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu agiri ofizialen bidez (errola-ziurtagiria).